

*Pasa den maiatzean LABek salaketa jarri zuen Lan Ikuskaritzan Siemens-Gamesa enpresaren kontra, enpresa horretan ilegalak eta ohikoak ziren jarduerak salatuz, lan-istripuak izkutatu eta ukatzeko helburuz egiten zituenak. Ikuskaritzak ikusi du salatutakoak egiazkoak direla eta horrelako jarduera ilegalak bertan behera uzteko eskatu dio.*

Salatzen genuena zen, enpresak, osasuna kaltetzen zuen edozein lan-istripuren aurrean, bajak eurak eta hauek aitortu eta jaso daitezzen ekiditeko asmoz, jarduera ilegalak egiten dituela Mutualia mutualitatearen lankidetzarekin.

Istripu baten ondoren enpresak Mutualiara deitzen du honi eskatzen dio istripua izan duten langileari baja edo aldi baterako ezintasuna ez aitortzea. Eurenak ez diren zereginak ezartzen zaizkie langile horiei edota ataza zentzugabeak.

Beste behin ikusten da erraza dela izkutatzea, gezurretan ibiltzea eta ez betetzea, eta mutualitateen konplizitatea lanean ematen diren osasunaren kalteak izkutatzeko. Erakusten da mutualitateek kontu ekonomiko eta enpresen interesei ematen dietela lehentasuna langilen osasun eta eskubideen gainetik.

Era berean Eusko Jaurlaritzari eta Osalaneko zuzendariari zuzenketa publikoa eskatzen diegu, prentsara pasa den uztailaren 3an egindako adierazpenetan esaten baitzuen “badira Gamesa eta Sidenor bezalako, enpresak, prebentzio arloan oso ondo egiten ari direnak”. Enpresa bi hauek salatuak eta zigortu egin ditu ikuskaritzak istripuak izkutatzegatik. Eusko Jaurlaritzak eredu moduan jartzen ditu eta jardunaldietara gonbidatzen ditu propaganda egiteko.

Hau da prebentzio arloan bilatzen dugun enpresa eredua? Ia zeinek istripu gehiago izkutatzean oinarritzen den eredua?

Enpresa hauek ez dira istripuak izkututzen dituzten bakarrak. Enpresa handiak izan ohi dira, presiorako gaitasuna eta botere politiko eta ekonomikoa dutenak. Ikuskaritara eramango ditugu guk dakigula praktika ilegal hauen ezagutza dugun enpresa guztiak.

Guzti horrengatik, berriro ere aldaketa eskatzen dugu prebentzio politiketan. Osasuna lehentasun izango duen eredu berria, mutualitateen gaineko kontrol handiagoa euren desagertze eta sistema publikora bideratzean, kalitatezko osasun eredu publikoa sortzeko.

—